



**EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO
DE EIBAR**

**EIBARKO UDALA eta UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN
arteko HITZARMENA:
EIBARKO JAUREGIAREN ERABILERA LAGAPENARENA**

Eibarko herrian, 2000ko azaroaren 28an, Udaletxearen Alkatetzan, ondoko hauek

BILDU DIRA

Alde batetik, IÑAKI ARRIOLA LÓPEZ jauna, Eibarko Alkate-udalburu, adinez nagusi, Eibarren bizi eta zenbakiko NAN duena, eta

bestetik, XABIER ISASI BALANZATEGI jauna, Udaiko Euskal Unibertsitatea (UEU) Kultur Elkartearen zuzendaria, adinez nagusi, Donostian bizi eta zenbakiko NAN duena.

Eibarko Udal Idazkari Nagusia den Arantzazu Echaniz Petralanda andrea egintzaren fede-emailea aurrean dutelarik,

HAUXE ADIERAZI DUTE

ATARIKOAK:

* Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) irabazi asmorik gabeko kultur elkartea da, hezkuntzan eta, oro har, euskal kulturaren arloan diharduena, eta 1990az geroztik Onura Publikoko aitormena duela, urriaren 16ko 280/1990 Dekretuaren bidez.

* UEUk hogeita zortzi urte daramatza Euskal Herri osoan euskara eta euskarazko irakaskuntza, batez ere zientzia eta unibertsitate mailan bultzatzen eta garatzen, eta lan horretan aintzindari izan dela Euskal Herrian. Urte horietan hainbat eta hainbat ekitaldi eratu ditu, hau da, jendaurreko jardunaldiak, hitzaldi-zikloak, argitalpenak, eta bere jarduera ezagunenak diren Iruñea eta Miarritzeko Udako Ikastaroak eta Uztaro aldizkaria.

* Eibarko Udalari, bere garaian, Juan Antonio Mogel ikastolak eman zion Isasi-Markeskoa Jauregia, Otaola Hiribideko 1ean aurkitzen den eraikina. Udalak, jauregia hartu ondoren, Lantegi Eskolarekin goitik behera birgaitu zuen; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, Isasi-Markeskoa Jauregia Kultur Ondasun izendatu zuelarik.

* Udalak, Jauregiari erabileraren bat eman nahi zion, eta erabilera, eraikinak zuen sailkapenaren arabera izan zedin nahi zuen. Horregatik aurreko urtean "Herrien Europa" Fundazioari laga zion, baina azkenean, erakunde horrek ez zuenez bere egoitza jauregian kokatu, udalak, horren aurrean, erabilera-lagapena "Herrien Europa" Fundazioari kentzea erabaki zuen.

* Orain, udalak, Udako Euskal Unibertsitateak egin dion eskaera jaso eta onetsi du; Txostenarekin lagundua etorri den eskaera, Isasi-Markeskoa Jauregiaren erabilera bere eskuetan lagatzekoa.



EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO
DE EIBAR

. Txosten horretan, UEUk, muinean, hauxe dio:

- Isasi-Markeskoa Jauregian UEUaren Ikastetxe Nagusia ipini nahi duela eta bertan garatuko dituen egintzak, besteak beste, hauexek izango direla:

1) Jarduera akademikoa: UEUren behineko eginkizuna denez, hainbat egintza dauzka bere barne:

- Udako ikastaldiak: Iruña eta Miarritzen ez ezik, Eibarren ere egingo dira

- Jardunaldi eta topaketak antolatuko ditu ikasturtean zehar: orain antolatzen dituenen artean, batzuk, Markeskoan bertan izango dira, eta eraikin horretan gradu osteko eta unibertsitate mailako hirugarren zikloko ikastaro berriak antolatzeko asmoa ere agertu du.

- Informatika-gela: gela hori ikastaroetarako euskarri didaktiko eta metodologikoa izango da eta gela multimediarren erabilera bermatzen da.

- Liburutegia: Karlos Santamaria biblioteka proiektuak bi helburu izango ditu: Eibarko eta Debabarreneko biblioketa-azpiegitura indartzea eta Euskal Herriko ikerketa-azpiegitura indartzea eta hobetzea.

Informatika-gelarena eta liburutegiarena publikoa izango da, eta eibartarren eta inguruko unibertsitario eta herritarren zerbitzura gongo dira, baita ikerlarien zerbitzura ere.

2) UEUren ikastetxe nagusia:

Isasi-Markeskoa jauregia izango da UEUren egoitza nagusia, beraz,

- Erakundearen gobernu-organoak jauregian bilduko dira.

- UEUKideen biltokia hura izango da: kideek, ikastaroak prestatzeko eta jardunaldiak gauzatzeko behar duten tokia han izango dute.
- Jarduera akademikoarekin lotutako bulego administratiboa jauregian jarriko da: bulego horretan UEUren jardun akademikoari dagozkion eginkizun administratibo guztiak burutuko dira.

Horregatik, Eibarko udalaren iritziz, UEU Markeskoa-Isasi Jauregian egotea interes handikoa da, herritarrendako eta bertaratuko den jende ororendako, onuragarria. Alde batetik, Jauregi horri UEUK emango dion erabilera, erabilera kulturala izango da; eta horrek, Jauregiari, berez duen balio artistikoari eta historikoari mesede egingo dio. Udalak horren garrantzia azpimarratu nahi du.

Beste alde batetik, UEUK bere fondo dokumentalak herriko unibertsitariei eta herritar orori zabalduko dizkie; ikerlariei aparteko arreta eskainiz.

UEUK bere kasa hartuko du eraikinaren ohiko mantenimendua. Beraz, udalak ez du gasturik izango Markeskoa Jauregiaren ohiko mantenimenduan.

Orain arte esandakoak kontuan, ondoko

HITZARKIN HAUEK IZENPETU DITUZTE:



EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO
DE EIBAR

LEHENA: Udalak, UEUri, Otaola Hiribidearen lean dagoen Markeskoa-Isasi Jauregiaren erabilera-lagapena eskaintzen dio. Jauregiak 902 metro karratu erabilgarri dauzka, beheko solairua eta beste hiru gehiago horren gainera.

BIGARRENA: Erabilera-lagapenak, hasiera baten, hamar urteko (10) iraupena izango du, baina bost urtetik bost urtera luzatzen joan liteke gehien jota 25 urte bete arte, alde bien adostasuna balego.

HIRUGARRENA: Jauregiaren erabilera dela eta, UEUk, beregain, honako betebeharrak hartzen ditu:

3.1- Eraikina, UEUn Estatutuek, agiri honen "Atarikoak"n eta urtero aurkeztuko duen egitasmoan ezarri eta ezarriko dituen ekintzak betetzeko erabiliko du UEUk. Gainera, Isasi-Markeskua Jauregia arretaz eta arduraz erabili behar du eta erabilera arruntetik sor litezkeen kalteak bere gain hartuko ditu; Euskal Kultur Ondareari buruzko legeak dioena ere bete egin behar du.

3.2- UEUk bere kargu hartuko ditu uraren, garbiketaren; telefonoaren, argindarraren eta eraikuntzaren kontserbazio arruntak sortutako gainontzeko gastuak.

3.3- UEUk bere kargu hartuko du eraikuntza behar den moduan edukitzeko eta mantentzeko erantzukizuna, erabileratik letozkioken mantenimendu eta konponketa guztiak egiteko ardura alegia (etxebarrukoak eta kanpokoak). Eraikinean ezustekoren bat edo ustekabekoren bat gertatuz gero, udalak hartuko du konponketa-obren kargu.

3.4.- Jauregiaren erabilera horretatik sor litezkeen erantzukizunak, penalak eta zibilak, UEUren lepo geratuko dira, horretarako erantzukizun zibilaren poliza eginez. Beraz, udalak ez du hartuko inongo erantzukizunik kausa horregatik.

LAUGARRENA: Hirugarren atalburuko 3.1) pasartean adierazitakoaren ildotik, Udalak eta UEUk, biek hala erabakiz gero, bien onerako izango diren elkarlanerako urratsak finkatuko dituzte jarduera-esparru bateragarriak izan litezkeen hainbat arlotan, betiere, zer, nola, non eta zein eratan alde zurre hitzartuta.

BOSGARRENA: Ikertzaileek eta herriko eta eskualdeko herritarrek UEUren fondoak ikerketzeko eta hango agiriez baliatzeko UEUk emandako arauak bete egin behar dituzte.

SEIGARRENA: UEUk, urtero, Jauregiaren erabilerari buruzko Memoria aurkeztuko du. Txosten horretan, urtean zehar egindako ekintza, bisita, kontsulta eta gainerako datu estatistikokoak islatu behar ditu. Udalak, modu horretan, erabilera-lagapenak herriari egin dion onura egiaztatzeko beta eta parada izango du.

ZAZPIGARRENA: UEUk, eraikinaren fatxada eta egitura zaindu egin behar ditu, barruko distribuzioa aldatu nahi izango balu, behar dituen baimenak eskatuko ditu, hain zuzen ere, eraikinaren kalifikazioaren arabera beharrezkoak izango zaizkion baimenak.

ZORTZIGARRENA: UEUk inolaz ere ezingo du eraikinaren zati bat edo eraikin osoa beste norbaiti alokatu edo laga.

BEDERATZIGARRENA: Isasi-Markeskoa jauregiaren lagapena amaitutzat jotzeko arrazoibideak hauexek dira:



EIBARKO UDALA
AYUNTAMIENTO
DE EIBAR

- 9.1. Erabilera-lagapenaren denbora bete izatea
- 9.2. Aurreko klausuletan esandakoa ez betetzea.
- 9.3 . Agiri hau izenpetzen denetik 6 hilabetera, UEUa, Isasi-Markeskoa jauregian ez bada sartzen, erabilera-lagapena bertan behera geratuko da.
- 9.4 . Herriaren interesagatik, egoera berezi eta apartekoren bat sortuko balitz eta udalak Jauregiaren premia izan -betiere herri-interesak hala egitea eskatuko balio- lagapena amaitu egingo da. Kasu horretan UEUak sei hilabete izango ditu eraikinetik irteteko baina jarduera akademikoa abian jarrita balego, jarduera amaitu arte luzatuko da handik ateratzeko da.

HAMARGARRENA: Agiri honetan jasotzeke dagoen zerbait sortuko balitz, Toki Erakundeen Ondasun Araudiak, esandakora egongo dira lotuak alde biak, eta sorospenez Hiriko Alogera Legeak eta Kode Zibilak esandakora.

Agiri hau izenpetu dute Eibarren, (halako egunean:::) bertan jasotako guztiari ematen dioten konformidadearen seinale

~~Inaki Arriola~~
~~Eibarko Alkateak~~

Xabier Isasi
UEUko zuzendariak

Arantzazu Echaniz
Eibarko Udal Idazkari Nagusiak

LUZAPENEZKO KLAUSULA.

Udal osoko bilkuraren 2010eko azaroaren 29ko erabakiz, eta alde biek hala adostuta, Isasi-Markeskoa Jauregia UEU-UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAri erabiltzen lagatzeko Hitzarmen hau 2015eko azaroaren 28ra luzatzea erabaki da, hitzarmenak orain dituen baldintza berdinetan.

Eibarren 2010eko abenduaren 10ean

ALKATEAK
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL

UEUren buruak,
KARMELE ARTETXE

Udal Idazkariak,
ARANTZAZU ECHANIZ PETRALANDA